

Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua

Jose Inazio Basterretxea Polo
Irakaslea, EHUn eta UEUn

Euskal hizkuntza bera eta euskaldungoa ezezagunak eta baztertuak dira gure inguruko eguneroko hedabide idatzi eleanitzetan. Erdal medioek ez diete kontatzen euren bezeroei gizartearen parte txiki bezain garrantzitsua den euskaldungoaren nondik eta norakoa.

Lan honetan, inguru hurbileko hedabide idatzi eleanitzek zenbat euskara, zelako euskara eta zertarako euskara erabiltzen duten analizatu da. Izan ere, sintomatikoa baita erdal medioetan euskarari ematen zaion txokoa hain txikia eta eskasa izatea. Isla mediatiko elebakar eta kulturbakar hori bakarrik esplika daiteke itsukeria politikoagatik eta tenkamendu sozialaren espiraletik begiratuta; ez, ordea, garapen konbibentzialaren esparrutik edo justizia linguistikoaren eta kulturalaren ikuspuntutik.

Basque language and Basque community are unknown and intentionally put in a corner in our everyday written media. Spanish media does not inform to its audience about the details of this little but important part of the society, which is the Basque people.

This article analyses the way written Spanish media use the Basque language, the frequency of the use and what it is used for. It results symptomatic to appreciate how little and poor space Spanish media offers to Basque language.

This resultant mediatic island can only be explained from a political blindness and a social isolation spiral; but not from a cohabitation development line, nor linguistic or cultural justice's point of view.

Euskal hizkuntza ezezaguna eta baztertua da gure inguruko eguneroko hedabide idatzi eleanitzetan¹. Euskal Herrian salmenta erreferentzial finkatua duten egunkariak kontuan hartuta, euskara hutsez argitaratzen den bakarra (*Euskaldunon Egunkaria*) alde batera utzita, euskal hizkuntzak jasotzen duen trataera ez da gizarte kulturantz bati legokiokeena; aitzitik, badirudi euskara eta gainerako hizkuntzak elkarrengana hurbildu beharrean, hizkuntza desberdineko hiztunak elkarrengandik hurbilago jarri beharrean eta euren arteko integrazioa piztu beharrean, nola euskara eta gainerako hizkuntzak hala euskalduna eta erdaldunak urruntzeko borondate irmoa dutela egunkari eleanitzik gehienek.

Gure egunkari eleanitzen kasua hurbiletik segituz gero, kulturantzatasuna eta hizkuntza-harreman diglosikoa gainditu gura lukeen pluraltasuna baztertutako kontzeptuak dira. Euskal Herriko Unibertsitatearen baitan azken urteotan egin diren ikerketek argitu dutenaren arabera², dudarik ez dago: hedabideek ez diote erantzuten gaur gaurkoz gizarte kulturantzatasuna osatzen duen Euskal Herriari. Tabuek, estereotipoek eta errezelo politikoek gidatzen dituzte hedabideek euskararekin dituzten harremanak, kasurik gehienetan.

Erdaldunak euskarari buruz duen ezezagutzaren arrazoi nagusia hedabide idatziek euskal kulturarenganako erakusten duten interes-tasa txikia da. Izan ere, gizarte honek euskaraz produzitzen duenaren berri gutxitan, oso gutxitan eskaintzen zaio erdal irakurleari, baita erdaraz bakarrik alfabetatua den euskaldunari edo, euskalduna izanik, erdal produktu mediatikoa gogokoagoa duenari. Erdal medioek arreta txikia eskaintzen diete euskaldunei, euskaraz bizi eta euskarazko kulturagintzan dihardutenei. Eta arreta txiki hori, kasu askotan sentsazionalismoari (esate baterako, euskal erakunde bat epaitegietara deitua denean) eta kanpainei (Bai Euskarari edo Ikastolen aldeko festak) lotuta dago. Baina, arreta txiki horrek ez dio begiratzen *euskarazko bizitza arruntari*. Horrek guztiorrek, ondorioz, euskarazko mundua zerbait gutxi ezaguna izateaz gain, mundu euskalduna istiluagaz edo mobilizazioekaz identifikatzera darama irakurle arrunta: berdin erdalduna nola euskaldun analfabetoa, edo erdal produktuaz elikatzen den euskaldun alfabetatua.

Nagusiki erdaraz bizi diren medioek ez dute erdaldunen eta euskaldunen arteko zubi-lana egiten. Erdal medioek ez diote kontaktzen beren bezeroari gizartearen parte txiki bezain garrantzitsua den euskaldunen taldearen nondik eta norakoa. Ezezagutza larria da. Euskal medioek (euskara hutsezkoek), aldiz, gizartearen parterik handiena erdaraz bizi dela eta, sarritan informatzen du euskalduna erdaldunen errealitateaz. Norabide bakarreko ezezagutzak inkomprentzioaren eta bazterkeriaren sentimendua pizten du euskaldunongan. Gure erkidegoetako (EAE, NFK eta Iparraldea) medio elebidunetan, ezezagutza larria baldin bada, zer esanik ez estatuetako (Frantzia eta Espainia) medio elebarkarretan.

1. Egunkari eleanitz moduan hartzen dugu bere orrialdeetan albisteak edo iragarkiak nahiz eskelak hizkuntza batean baino gehiagotan eskaintzen dituztenak, edozein delarik hizkuntzen arteko harremana, nola kuantitatiboa hala kualitatiboa.

2. Basterretxea, J.I. (2000): "Hedabideak eta hizkuntza, erdararen aldeko erreproduzio mediatikoa" in NOR Ikerketa Taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, UEU, Bilbo.

Lan honetan, inguru hurbileko hedabide idatzi eleanitzek zenbat euskara, zelako euskara eta euskara zertarako erabiltzen duten analizatu gura da. Izan ere, sintomatikoa iruditzen baitzaigu *erdal* medioetan euskarari ematen zaion txokoa hain txikia eta eskasa izatea. Euskal Herriko askotariko gizarte (kulturaren eta hizkuntzaren esparrutik begiratuta) sistematikoki baztertua, lausotua eta ezabatua izatea egunkarien orrialdeetatik, bakarrik esplika daiteke medioek dituzten konpromiso politikoaren irakurketaren bidez. Isla mediatiko elebakarra eta kulturabakarra. bakarrik esplika daiteke itsukeria politikoagatik eta tenkamendu sozialaren espiraletik begiratuta; ez, ordea, garapen konbidentzialaren esparrutik edo justizia linguistikoaren eta kulturalaren ikuspuntutik.

1. Eztabaidarako portaera-tipologia

Oro har, hedabideek (gure kasu konkretuan: eguneroko idatziek) hizkuntzen talkan har ditzaketen jarrera desberdinak kontuan izanda, ondoko balizko tipologia eraiki daiteke:

1.1. Salbuespen-ereduko hedabideak

Gizarte batean bizirik dauden hizkuntzetako bat beren orrialdeetan modu sistematikoan ignoratzen duten hedabideak sailka daitezke lehen atal honetan. Hizkuntza gutxiengotuan idatzitako artikuluak hain dira gutxi, ezen balio estatistikorik ere ez duten izan. Kasu honetan, baztertutako hizkuntzan argitaratutako albisteen kopurua ez da heltzen egunkariaren orrialdeetan argia ikusi dutenen ehuneko bostera. Praktika honen bidez, hedabideak tintontzian uzten du, berariaz, askotariko gizarte osatzen duten hizkuntza-kolektibitateko bat; horren jarduera kulturalen eta bizitza arruntaren isla izan daitezkeen gertakari albistegarrietako askok eta askok ez dute argia ikusten. Portaera horren bidez, hedabideak komunitate linguistikoaren talka iraunkorra bultzatzen du, bai eta hizkuntza ezberdinetan bizi gura luketen giza taldeen elkarren arteko ezezagutza ere. Justizia bako jarrera inon baldin bada, portaera horretan susma daiteke.

1.2. Anekdotaren ereduko hedabideak

Atal honetan honelako hedabideak sailka daitez: euskarari dagokionez aurreko multzokoen baino erabilera handiagoa izan arren, irakurleari bere inguruko munduari buruzko narrazio intelektualki asegarria eskaintzen ez dioten hedabideak, nahiz eta informazioa hizkuntza gutxituan eman. Nolabait kuantifikatzeko, esan dezagun ezen baztertutako hizkuntzan idatzitako artikulek ehuneko bost eta hamar arteko kopurua osatzen dutela. Jarrera anekdotikoak babes soziala eskain diezaioke gutxiengo linguistikoari, nahiz eta zerbitzu mediatikorik eskaintzen ez dion: ez baitu asebetetzen irakurlearen jakinmina inguruaren ezagutzan. Portaera anekdotikoaren aurrean, irakurlea derrigorturik dago hizkuntza gutxiengotuan idatzi ez diren albistek irakurtzera, baldin eta inguratzen duen munduaz modu moderno batean informaturik egon gura baldin badu. Kasu honetan, hizkuntza gutxiengotuaren agerpena medioan detektaeraza den arren, konplimenduzko jarrera baino ez du islatzen.

1.3. Bonsai-ereduko hedabideak

Atal honetakoa litzateke halako egunkaria zeinek hizkuntza gutxiengotuan idatzitako artikuluen bidez irakurlea munduaz era minimoan informaturik edukiko bailuke, nahiz eta, jakina, hizkuntza nagusiko irakurlea askoz hobeki informatu. Kasu honetan, batetik, baztertutako hizkuntzan argitaratutako albisteek multzo detektaerraza osatzen dute egunkariaren orrialdeetan, eta, bestetik, baztertutako hizkuntzan argitaratutako albiste horiek egunkariaren ia atal guztietan aurki daitezke, eta ez hizkuntza gutxiengotuarentzat sortutako atal berezien batean, non kokatzen baitira era eta tankera desberdinetako artikulua oro edo ia-ia guztiak. Egunkariaren portaera horrek ez du ahalbidetzen hizkuntza gutxiengotuan bizitzerik; hala ere, hizkuntza gutxiengotuarenganako begirune handiagoa susmatzen da ildo editorialean. Bonsai-ereduko egunkariak gizartearen isla garden dira; egoera soziolinguistikoa zein den erakusten baitute; hala ere, egoera gaindizetik urrun daude.

1.4. Parekotasun-ereduko hedabideak

Atal honetakoa litzateke hizkuntza-komunitate desberdinak modu berean informatuko lituzkeen hedabidea. Kasu honetan, hedabideak informazio bera eskainiko luke hizkuntza desberdinetan, edo argitalpen berean edo argitalpen berezietan. Desberdintasun bakarra hizkuntzan legoke, ez albistearen beraren enmaketazioan, ez argitaratutako ale kopuruan ezta merkatu-kokapenean ere. Hedabideak praktikaturako parekotasunak, ekoizpen mediatikoei gagozkielarik, hautatutako hizkuntzan bizi ahal izatea ahalbidetuko lioke herritar bakoitzari. Argi ez dagoena, ostera, hauxe da: hautatutako hizkuntzan bizi ahal izateak talka linguistikoa gainditzeko aukera emango ote liokeen gizarteari berari.

1.5. Hobeste-ereduko hedabideak

Kasu honetan, hedabideak hobestu egiten du hiztun gutxieneko hizkuntza besteen gainetik. Hobeste-politikak, normalean, hizkuntza gutxiengotuaren garapena bilatzen du; edo, beste barik, parekotasun-egoerara heltzea.

Bost jauziko zirkulua zarratzeko: hobeste-jarrera, bestalde, hizkuntza gutxiengotuaren aldekoa barik, hizkuntza nagusiaren aldekoa denean, eta gutxiengotua baztertu gura duenean, 1.1. tipologiaren aurrean aurki gaitzke, zeinean gutxiengotuarenganako ignorazio-politika baita nagusi; salbuespen-egoerara egin dugu jauzi, bada.

2. Euskal Herriko egunkarien paradigma linguistikoa

Euskal Herriko kasua aztertzen baldin badugu, erraz aurki ditzakegu lehen hiru ataletan sarbidea izango lituzketen hedabide idatziak; ez, ostera, laugarrenean edo bosgarrenean, horietan sailkatua izateko hautagairik ez baitago. Gure inguruko hedabide idatzien portaera euskal hizkuntzaren aurrean ez da irmoa, dinamikoa baizik, urtez urte aldatzen dena: kasu batzuetan euskararen eta

erderaren arteko harremana goxatzeko, beste batzuetan lazteko. Baina oro har, azken bost urteotan, egoera ez da hobetu, bestela baino: salbuespen-eredua praktikatzen duten egunkariek askoz zurrunago jokatu dute euskararekin³.

Oro har, *medio eleanitzetan* erabiltzen den euskara gutxi da, beti ez ditu Akademiak ezarritako irizpide ortografikoak onartzen, testuak egunkariez kanpoko autoreek eginak dira —kolaborazioak, alegia—, tematika murriztekoak dira eta albisteez merezi duten balorazio editoriala oso bigarren mailakoa da.

Salbuespenak salbuespen, medioetako euskarak (euskaraz argia ikusten duten albisteez) ez du gizartearen konplexotasun ez ideologikoa, ez kulturala, ez soziala ezta linguistikoa ere islatzen. Egun, Euskal Herrian euskaraz bizi gura lukeen herritarraren eskubide mediatikoak ez daude bermaturik egunkari eleanitzen jardueraren bitartez. Oro har, hedabideek egiten duten munduaren irakurketa erdaraz da, ez euskaraz. Euskaraz bizi gura lukeenak euskara hutsezko hedabideetara jo beharko luke.

Euskarazko produkzio mediatikoa eta erdarazkoa ez daude, ez, maila berean, ez edukie gagozkielarik ezta baliapideei gagozkielarik ere.

2.1. Hedabideak eta salbuespen-egoera.


Arestiko tipologian azaldutakoaren arabera, talde honetakoak dira gizarte batean bizirik dauden hizkuntzetako bat beren orrialdeetan modu sistematikoan ignoratu egiten duten hedabideak. Genioenez, kasu honetan, baztertutako hizkuntzan argitaratutako *input*-en kopurua ez da heltzen egunkariaren orrialdeetan argia ikusi dutenen ehuneko bostera. Salbuespenak gidatutako jarduera horren bidez, hedabideek komunitate linguistikoen talka iraunkorra bultzatzen dute, bai eta hizkuntza ezberdinetan bizi gura luketen giza taldeen arteko ezezagutza ere.

Gure inguruko hedabideei begiratu bat eskainita, argi asko ikus daiteke testuinguru horretan mugitzen direla, agian beste batzuen artean, ondoko hedabide nagusiak: *El Mundo*, *El País*, *El Correo*, *Diario Vasco*, *Diario de Navarra*, *Diario de Noticias*, *Periódico de Alava* eta *Sud Ouest*.

Salbuespenezko jardueraren adibide moduan ikus ditzagun hurrengo hiru taulak; horietan zenbait egunkarik erabilitako euskararen kopurua zein den erakusten da (kontaketak albiste-kopuruak izan ditu beti ere kontuan). Taula bakoitza erkidego bateko egunkari bati dagokio: lehena Iparraldean kontsumituen den egunkariari, bigarrena Mendebaldeko herrialde euskaldunean kontsumo handiena duenari eta hirugarrena Ekialdeko bati. Hiru erkidego desberdin izan arren, joera oso bateratua aurkitzen da. Ikus ditzagun adibideak:


3. Basterretxea, Gorostidi, Osa eta Otondo (2001): "Hizkuntza eta medioak, elebitasun antzuaren parodia" UEUren Udako Ikastaroetan eskainitako hitzaldia (2001/07/03), argitaratu gabea.

Sud Ouest




Adibide moduan baino erakusten ez den taula horretan ikusten denez, Ipar Euskal Herrian modurik masiboenean kontsumitzen den egunkariak, batez beste, argitaratutako ehun albistetik bakar bat eskaintzen du euskaraz. Albiste gutxi horiek duten erreferentzia-mundua (hots zeri buruz diharduen) aztertzen badugu, Bordeleko egunkariak euskaraz eskaintzen duen isla baserri-munduarekin eta folklorikoarekin lotutakoa dela erraz kaunituko dugu. Euskaraz narratutako mundua, *Sud Ouest*-en, ez da modernoa, ez da anitza, ez da gaztea, ezta hirikoa ere. *Sud Ouest*-ek, goiko zerrendan aipatutako gainerako egunkariak egin duten legez, eragotzi egiten dio euskal hiztunari euskaraz bititzea kontsumo mediatikoari dagokionez.

Diario Vasco



Ikusten denez, hemen ere, euskararen erabilera kuantitatiboak ez dio erantzuten egunkari donostiarrak begien aurrean duen gizarte elebidunaren errealitateari. *Diario Vasco*-k ehun albistetik bi inguru idatzi ohi ditu azken urteotan euskaraz. Albiste horiek, bestalde, oso lotuta daude kultura-gaiekin edo iritzi-sailarekin. Kirolak, politikak eta ekonomiak nekez ikusten dute argia euskaraz egunkari honetan.

Diario de Navarra




Diario de Navarra egunkariari dagokionez ere, datuek argi hitz egiten dute: ehun albistetik zero koma bost baino gutxiago argitaratzen da euskaraz Iruñeako egunkari honetan. Gaiak eurak ere, bigarren mailakoak ohi dira eta erabiltzen den euskarak, nagusiki, ez ditu Euskaltzaindiaren idaztarauak errespetatzen. Mundu zaharraren isla ematen du egunkariak euskaraz, etorkizunerako aterik ez du zabaltzen eta folklorismo antzuan dihardu gehienbat.

Hiru adibide horiek, beste batzuen artean, jarrera linguistiko ezkorren isla baino ez dira. Gorago esan den legez, egunkari gehiago daude egoera berean edo oso antzekoan: *El Mundo*, *El País*, *El Correo*, *Diario de Noticias* eta *El Periódico de Alava*.

2.2. Hedabideak eta anekdota-egoera

Gorago genioenez, atal honetan lerrokatu daitezke hizkuntza gutxiengotuan eskainitako informazioak irakurleari inguruko munduaren narrazio intelektualki asetzailerik eskainiko ez lioketen egunkariak; nahiz eta egunkariak hizkuntza gutxiengotuari, modu anekdotikoan baino ez bada ere, babes soziala eskaini gura dion (alabaina, ez du asebetetzen irakurlearen jakin-mina ingurukoaren ezagutzan). Portaera anekdotikoan, hizkuntza gutxiengotuaren agerpena medioan aseguratuturik dago, nahiz eta konplimenduzko jarrera baino ez duen islatzen.

Gure inguruko medioen artean *Deiak* betetzen du ondoen definizio arau-emailea. Izan ere, egunkari nazionalistak, azken berrikuntzen ondoren, euskararen erabilpen-tasa ehuneko bostetik gora eraman baitu, bai eta euskara ia atal guztietara zabaldu ere, nahiz eta zerbitzu mediatiko asetzaileak eskaintzen ez dion, euskaraz bizi gura lukeen balizko irakurleari.



Taulak argitzen duenez, *Deia*-k berebiziko aldaketa egin du bere baitan euskararen aldeko apostuan. Izan ere, bost urteko epean, *Deia*-k hiru aldiz euskara gehiago erabiltzen du orain bere orrialdeetan. *Deia*-k salbuespen-eredua atzean utzi eta goragoko maila batera jaso du euskararen erabilera, nahiz eta bere apostua, gaur-gaurkoz, anekdotikoa besterik ez den.

Deia-k, euskal gizartearen aurrean, euskaltzaleztat baiezatu gura du bere burua. Euskara atal guztietara zabaldu du euskal hizkuntza erabilera metalinguistikotik ateraz. Halan eta guztiz ere, *Deia*-ren euskarazko albisteak urrun daude euskaldun irakurlearen asebetetze-aukeratik.

Deia-k, euskarari lehen bultzada Lizarra-Garaziko hitzarmenaren ondoren eskaini zion, euskal hizkuntzari aspaldian eskaini ez zion arreta eta begirunea berreskuratuz. Orduan zabaldutako lan-ildoak ez da zarratu eta mende berriari begira egindako barne-antolamendurako aldaketa berriek baiezatu egiten dute egunkari nazionalistak ahalegin berezia egiten diharduela euskara modu normalizatuagoan eskaintzeko.


Deia-k, edozein modutan ere, lerro gutxi eskaintzen dizkio euskarari. Tamalez, modu anekdotikoan darabil oraindik orain *Deia*-k euskal hizkuntza bere orrialdeetan.

Dena den, normalizaziotik urrun dagoen arren, egunkari nazionalista eta salbuespenzaleen arteko lubaki linguistikoa nabarmena da.


2.3. Hedabideak eta bonsai-egoera.

Gorago genioenez, atal honetakoa litzateke halako egunkaria zeinak hizkuntza gutxiengotuan idatzitako artikuluen bidez irakurlea munduaz informaturik modu

minimo batez edukiko bailuke, nahiz eta, jakina, hizkuntza nagusiko irakurlea askoz hobeki informatu. Hizkuntza gutxiengotuan bizitzerik ez du ahal-bidetzen egunkariaren portaera horrek; hala ere, hizkuntza gutxiengotuarengana-ko begirune handiagoa sumatzen da ildo editorialean. Bonsai-ereduko hedabideak gizartearen isla garden dira: erakusten baitute zein den egoera soziolinguistikoa, baina, egoera gairidizetik urrun daude. *Gara*-ren kasua ikus dezagun.



Taula horrek argitzen digunez, egunkariak hamar albistetik bi eskaintzen ditu euskaraz, gure inguruko beste edozeinek baino gehiago; alabaina euskara erdarreko egoera diglosiko argian gelditzen da egunkari abertzalean. Azken urte bietan, dena den, *Gara*-k gora eraman du euskararen erabilera-tasa: ehunekotan, bizpahiru puntu.



Bigarren taulak euskara hori *Gara*-ren zein ataletan erabiltzen den argitzen digu. Taularen arabera, euskarak bere balio metalinguistikoa galdu du eta bere presentzia areagotu egin da lehen erabat anekdotikoa zen gaietan eta ataletan: politikan, gizartean eta kirolean.

Euskararik gehien eta modu normalizatuenean eta estandarizatuenean eskainita, egunkari eleanitzen artean egoerarik onena erakusten duen arren, *Gara-k*, gaur-gaurkoz, egunkari diglosikoa eramaten du Euskal Herriko kioskoetara.

3. Parekotasun-egoera linguistikorik bai Euskal Herriko egunkarietan?

Egun, urrun ikusten da egoera ideal hori. Presioak handiak dira. Hizkuntza eta borroka politikoa, agian, hurbilegi daude oraindik eta horrek bide eta eskubide ematen diete salbuespenzaleei, anekdotazale eta diglosiazale gehienei euren lubakietan irmotzeko eta aurrerapausurik ez emateko. Aurreko tauletan argitu dugunez, ez dute jardunera bera egunkari guztiek: batzuk, ahulak izan arren, parekotasunaren bilako aurrerapausuak egiten dituztela ikusten da; gehienek, ordea, ez dute erakutsi horren alde daudenik.

Euskal gizarteak ez du, oraindik, medioen jarduera zaintzeko eta hobetzeko erreminta publikorik sortu. Egia da egoera arruntetan ez dela ikusten beharrian hori, baina gure Herriak bizi duena ez da erabat arrunta. Bada garaia, ordea, erreminta hori sortzeko.

Egunkariez dihardugula, esan beharrekoa da hurrengoa: alegia, gure inguru hurbileko enpresa mediatiko denak pribatuak direla eta euren gaineko kontrol soziala ez dela erraza; bai ordea euren gaineko kontrol politikoa eta ekonomikoa. Enpresa pribatuaren jarduera linguistikoa ez dago arauturik Euskal Autonomia Erkidegoetan, eta ez dago nola herritarrak horretan irmo saiatu ez direlako hala Erakunde publikoak horretan tematu ez direlako. Hedabideetan, baita pribatuetan ere, parekotasun linguistikoa bermatuko lukeen legearen beharra du gizarte kulturantz honek.

Erakunde publikoek enpresa pribatuen jarduera ekonomikoa zaintzen duten moduan, ekoizpen mediatikoa bera ere zaindu beharko lukete, eta presionatu parekotasun-egoera hurbilago izan dadin lehenbailehen. Bestela, gaitzak dira sinisteko euskal erakunde publikoak gizarte kulturantzaren alde daudela dioten diskurtso horiek.

Egungo diskurtso mediatikoak ez du bermatzen hizkuntza-kolektibitateen arteko zubigintza-lana. Komunitate linguistikoak erabat aparte biziko lirateke Euskal Herrian euskaldunak ez balituzte inguru hurbileko erdarak ontzat hartu izan eta komunikazio-tresna gisa erabili. Ez da gauza bera gertatzen erdaldunen lerroetan, ez baitute aintzakotzat hartzen euskal hizkuntza komunikazio-tresna moduan. Hizkuntzen arteko lubakia ez da itxi, areago, badirudi gero eta zabalagoa izan daitekeela, baldin eta neurri zuzentzailerik hartzen ez baldin bada.

Badirudi gero eta urrunago daudela erdaldunak euskara aintzakotzat hartzetik, medioek erantzukizun argia dute horretan. Ez da onargarria *statu quo* linguistikoaren eusteari buruzko diskurtsoa. Ez da nahikoa, hala ere, intentzio onaren diskurtsoa. Hedabideek praxiarekin demostratu behar dute aintzakotzat hartzen dituztela euskal gizarteko kolektibitate linguistiko guztiak.

Zenbait hedabidek praktikatzen duten bazterkeria linguistikoa intentsitate

ahuleko arrazakeriaren islatzat har daiteke. Arrazakeria linguistiko-mediatico horrek ez du garbiketa etnikorik sustatzen, hala ere ez da justua, zeren maila biko herritarrak sortzen baititu: batetik, goi-mailakoak, zeintzuei euren hizkuntza hobestuan eskaintzen baitzaie informazio modernoa; eta, bestetik, behe-mailakoak, zeintzuek ezin baitute jaso lehenek beste informazio eurek hobestutako hizkuntzan, zeina, ez ahaztu, zenbait euskal lurraldetan (nola Euskal Autonomi Erkidego osoan, hala Nafarroako Foru Erkidegoaren zenbait lekutan) ofiziala ere baden.

Erakunde publikoek ezin dute fitxarik mugitu barik segitu, euskaldunak ez du hori merezi eta.

4. Parekotasun-egoera linguistikoa medioetara hurbiltzeko arau-proposamena.

Ausardia behar dute hedabideek, ausardia erakunde publikoek, ausardia herritarrek. Lehenak egora diskriminatzaileak baztertzeko. Bigarrenak araudia sortu eta beharizanetara egokitzeko. Hirugarrenak bere eskubideak aldarrikatzeko.

Bidea ez da erraza. Urratsak egin, egin behar dira. Debatea, aholkugarria da. Hurrengoak parekotasun-egoera linguistikorantz abiatzeko gizarte-eztabaida pizteko puntuak baino ez dira.

Aurretik, dena den, zehaztasun bat egin beharra dago. Euskal Herriak ez du hautatu, oraindik orain, zein den bere etorkizuneko egoera linguistiko ideala: elebakar euskalduna, elebakar erdalduna, elebidun frantses-euskalduna, elebidun frantses-espainola, elebidun espainiar-euskalduna, hirueleduna... Horrek dena mugatzen du, bistan da.

Demagun, nonbaitetik hasi behar da eta, egungo marko juridikoak marraztutako zelaian jokatu beharra dagoela, eta demagun, demokraziak hala eskatuta, eleaniztasunarena dela euskal gizarteak etorkizunerako egiten duen hautua. Inguru hurbileko egunkariei gagozkielarik, zeintzuk urrats izan daitezke abiapuntu Euskal Herriko komunitate linguistikoen arteko talka gutxitzeko eta elkarrenganako konfiantza bermatzeko?

1.- Hedabideek bazter utzi beharko lituzkete hizkuntza eta hiztuna demonizatzen dituzten argumento periodistikoak. Hori arrazakeria linguistikoaren isla baino ez da eta. Demagun, haragia bere gordinean ikustearren, herritar batek labankadaz hil duela bere bikotekidea; *halako erdaldunak bikotekidea labankadaz hil du* tankerako titularrak edozein demokrataren masailak gorrituko lituzke, besteren lotsaz. Antzeko efektua eragin beharko lukete euskara irakasteko erakundeak talde biolentoeekin identifikatzeko joera mediaticoek.

2.- Hedabideek kazetari eleanitzak kontratatu beharko lituzkete Euskal Herriaren ezagutza kulturantz bideragarria izan dadin beren orrialdeetan. Erkidegoetako hizkuntza ofizialeko batean atzerritar gisa portatzen den kazetariak ezin du bere lan profesionalari dagokion duintasunez jardun eta bere irakurleari eskaintzen dion errealitatearen bertsioa, ezinbestean da distorsionatua.

3.- Beharrezkoa da hedabideek euskarari leku aproposa zabaltzea euren orrialdeetan. Ikuspuntu kuantitatibotik begiratuta, egun erabiltzen ari diren tasak ez dira inondik inora onargarriak. Aldaketa nabarmena behar dute egunkari eleanitzen ildo editorialek, euskarari leku duina eskaintzeko euren orrialdeetan.

4.- Nola aldaketa koantitatiboa hala kualitatiboa exijitu behar da egunkarietatik. Ez da nahikoa kopuru hutsetan akordioetara heltzea, euskarak ateak zabalik behar ditu gai guztietan; ez bakarrik folklorea eta metahizkuntzan. Euskarak eta erdarek konbibentzia bermatua behar dute izan hedabideen jarduera sozialean.

5.- Euskararen beraren barne-egoera dela eta, hedabideek, berebat, zaindu beharko lukete grafia batua. Hedabideek, nongoa den bakoitza kontuan hartuta, euskalkien aldeko apostua egitea ere zilegia dute, beti ere, grafia bateratu estandarra aintzakotzat hartuta.